

3.- ARK'EKO JONE DEUNA

Edesti osoan emakumerik arrigarrietariko bat dogu Orleans'eko Damea deritxon Ark'eko Jone Deuna edo Santa Juana de Arko.

Bere bizitzea ondo aztertua izan da: Ikuslea, errege-zalea, martiria...

1412n. urtean jaio zan baserri baten, Frantze'ren iparraldean. 13 urtekoa zala asi zan ikuslea zala esaten eta ikusi ebazanak San Migel, Alexandría'ko Katalina, Margarita Deuna eta beste batzuk izan ziran.

1429n. urtean Karlos Frantze'ko erregea izatea nai eban baiña inguruan eukazan gudari ingelesak ez eutsoen izten.

Jone joan zan Karlos'egana eta esan eutson Jaungoikoa bere erregetzaren alde egoala. Erregeak gudariak emon eutsozan inglesen aurka guda egiteko eta Jone'k lortu eban Orleans askatzea.

Baiña Karlos erregeak ingelesakaz ituna egitea nai eban eta Jone orren aurka egoan, onek ingelesak Frantze'tik kanpora botatea nai eban.

1430n. urtean Jone'k bere kontura ekin eban gudaketan Paris-ondoan, baiña galdu eta inglesen eskuetara jausi zan.

Inglesak salakuntza gogorak agertu ebezan bere aurka: Fede okerrekoa zala, sorgiña zala eta sorginkeriak egiten ebazala.

Eleiza'ko epaillak epaitu eban Jone Ruan'en. Epailariari ez jakon atsegin Jone gizon jantzita ibiltzen zala jakitea eta ez sorginkerietarako bide ziran eratzunak erabiltzen ebazala ikustea. Gitxiago izan jakon atsegin, Jone'k esan eban lez, bere erantzupena Jainkoaren aurrekoa zala eta ez

Eleizearen aurrekoa.

Eriotzarako epaia emon eutsoen eta Jone goibel geratu zan: Suaren bildur aundia eukan eta orregaitik autortu ebazan bere okerkeriak eta damutu be egin zan. Ez eben erre,espetxeratu baiño.

Baiña gero, espetxetik urten ebanean, bere bildur-ikareagaz lotsatu egin zan eta barriro gizon jantzita ibiltzen asi zan, eta oso-osoan lengora biurtu.

Bere buru-gogorkeri orreri sua zor jakon eta 1431n. urtean orrillaren 30n. egunean Ruan'eko plazan erre eben.

Ona artekoa edestiko egia da, baiña edesti onetan emendik aurrera doana, ez da gauza ziurra.

25 urte geroago VII Karlos'ek irabazi eutsen inglesai eta Jone'ren babespean jarri zan. Barriro epaitzeko eta errubako agertzeko eskaria egin eban.

Askok eskatzen eban Ark'eko Jone Santa egitea eta frantzetarren ikur lez agertzea, baiña Eleizearentzat ori ez zan bide argia, ingelesak txartzat artuko ebelako..

1920n. urtean egin eben Santa eta berea orrillaren 30n. eguna da, bera erail eben eguna.

Bera erail eta 25 urte geroago ikusi ei eben Paris'en eta bere neba bi ezagutu be egin ebazan. Inkisidoren batek aztertu eban Jone barri au eta ez zan agertu beronen aurka.

Bigarren Jone au ezkondu be egin zan eta batzuren ustez abade bategaz maitemindu be bai. Ete zan au Jone bera? Ala guzurrezko'ren bat?

OLAZAR'tar Martin'ek

ESKERRAK SALBATZAILLEARI

Millinoiak lagunak
ezagutu dauz lurra
bere babesean,
ezbear ta zoridun
era bietako jende
bizitza bidean.

Bizitzaren ardurak,
sarrita, itzal dira
giza indarrarentzat,
laguntasuna bear
ta gizonak Jainkoa
artzen dau laguntzak

Eskerrak Jainkoari,
egin al izan ditu
gauz arrigarriak,
egiz eskertu ditu
gogorik onenagaz
ongi-nai guztiak.

JAUNGOIKO SALBATZAILLE

Gizadi samindua
negar-miñez egoan
mundu zabalean,
gaisorik gizajoa
gaiztakeriak jota
illuntasunean.

Argia bear eban
maitasunez ondurik
bizitza barrian,
lurra itsu egoan
gauz aundietarako`
samiñen artian.

Aita errukitu zan
Semea bialdurik
gizonen artera,
oi... gauz arrigarria,
odolez salbau eban
giza bizikera.

PAULIN